

# BEHEMENDI: LANDA-GARAPENA SUSTATZEN

Mikel Zendoia



**O**hiko lankidetzak hitzarmenarekin jarraituz, Behemendi Donostialdea-Bidasoko Landa Garapenerako Elkartek eta Errenteriako Udalak herriko landa eremuaren garapenean lanean jarraitzen dute: Zamalbide, Sanmarko-Lau Haizeta Parkea, Listorreta...

Errenteriako mugen barruan hiri handi bat eta landagune zabal bat daude. Eta landa eremu honen barruan Aiako Harria Parke Naturala (Natura 2000 Sarea) eta baserriz beteriko eremua, non kalitatezko elikagaiak ekoitzi eta landa-eremuko biztanleak bizi diren.

Landa garapenaren ikuspegitik bideratzen diren ekintza eta proiektuek landa eremuko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, nekazariarentzako zerbitzu bereziak eskaintzea eta hiritarrentzako aisialdi aukerak eskaintzea dute helburu. 2013. urteko ekainetik gaur egun arte landutako ekimenak ondorengoak izan dira:

- *Landa eremuko biztanleei zuzendutako zerbitzuak*: Arlo honetan nekazariei zuzendutako zerbitzu bereziak eta landa eremuko biztanleentzako zerbitzu orokorrak daude. Lehenengoan artean, belarra mozteko zerbitzua, belar bolak egiteko zerbitzua (661 belar bola egin dira), ximaurre zabaltzeko zerbitzua eta artoa erein eta biltzeko zerbitzua eskaini dira (4,5 ha). Bigarrenen artean, berriz, ondorengo aipatu behar dugu: nekazal guneko zabor biltzeko zerbitzua (13 ontzitan 181.640 kilo bildu dira) eta Errenteriako Udalarenak diren landa eremuko herribideen desbrozaketa eta garbiketa zerbitzua (31 km baino gehiago garbitzen dira ekain eta urrian).
- *Aiako Harria Parke Naturala (Natura 2000 Sarea)*: Behemendi Elkartek naturgune honen erabilera publikoaren kudeaketan

laguntzen du. Barruko Donejakue bidean oinezkoentzako zubi bat eta informazio panelak jarri dira.

- *Gizarte zerbitzuak landa eremuan*: 2008. urtean hasiera eman zitzaion Bidez bide zerbitzuak indarrean jarraitzen du. Honen bitartez, Errenteriako baserrietan bizi den adineko jendeari eta mugikortasun arazoak dituztenei herri gunera joateko garraio zerbitzua eskaintzen zaio, herrian dauden zerbitzuetara jaisteko aukera izateko. Zerbitzu honek eskaera bidez funtzionatzen du; herritarrak zerbitzua behar duenean gidariari deitzen dio. Zerbitzuak 8 erabiltzaile ditu eta 847 bidaia egin dituzte.
- *Ekolapiko proiektua Errenteriako haur-eskoletan*: Errenteriako Udalak, Behemendik eta Biolur Elkartek bultzatzen dute proiektua. Honen bitartez, Errenteriako Udalak kudeaturiko haur-eskoletan elikagai ekologikoez osaturiko menua eskaintzen zaie bertako haurrei.

- *Azoka bereziak*: Bertako baserriko produktuen kontsumoa sustatzeko Lore eta Landareen Azoka (martxoak 23), Baserriko Produktuen Azoka (uztailak 23) eta Landalurraren Azoka (urriak 19) antolatu ziren.
- *Landare exotiko inbaditzaileen aurkako lanak*: Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteriako Udala eta Behemendi Elkartearen artean landare inbaditzaileak suntsitzeko lanak egiten dira herrian zehar.
- *Liztor beltza espezie inbaditzailearen kudeaketa*: beste hainbat herritan bezala, landaguneko habiak ezabatzeko prozedura ezarri da, elkarteko bi langileren bidez egingo da.
- *Herribideen mantenimendua*: Landa eremuko herribideen mantenimenduan ere hainbat inbertsio egin dira: bionda berritzeak, itxitura konponketak...

